



**2014KO URRIAREN 17KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko urriaren hamazazpian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Maialen Aldasoro Aranburu zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2014ko urriaren 3an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 81 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA LAU MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (84.757,73 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- KIROLETAKO LAGUNTZAK.-**

Kiroletako Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

Herriko kirol taldeei honako dirulaguntzak ematea:

<b>KIROL TALDEA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
Futbol taldea	13.321 €
Pelota taldea	1.402 €
Igeriketa taldea	631 €
Atletismo taldea	764 €
Mendizale taldea	762 €
Txirrindulari Elkartea	443 €
Sofbol taldea	675 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>17.998 €</b>



Mikel Navarro Etxeberriari, irailaren 27an Lazkaon egin zen Euskal Herriko Street Skate txapelketarako 175 € ematea.

Juan Joxe Etxeberria Zalduari, uztaileko asteburuetan "Joxemari Kerejetaren oroimenez XI. Pala Txapelketa"ren antolaketagatik 210 € ematea.

Pelota Elkarteari, Lazkao Antzar Pilota Kirol Elkartek VIII. Goierri Beheko 10 udalen pelota txapelketaren antolaketagaitik, 60 € ematea.

#### IV.- BASHERRI EGUNEKO DIRULAGUNTZAK .-

Basherri Egunaren inguruan Ingurumen eta Lehen Sektorea Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartzen du: postuak jartzen eta egun horretako antolaketan parte hartu, hala nola pintxoetarako eta zozketatu ziren bi saskietarako emandako produktuengatik, guztira LAU MILA SEIEHUN ETA HAMASEI EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO (4.616,36 €) ematea, bere espedientean dagoen zerrendan azaltzen den banaketaren arabera.

#### V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du Beheko Tailerra dela eta, aurreko legegintzalditik datorren eskaria egin nahiko lukeela bere taldearen izenean, hau da, eraikin hori eraisterakoan beheko solairua mantendu dadila.

#### VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bi gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

